

BEORLEGUI

bat kontatzera. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldean, norbaitek..., bueno, beharbada ez da esatekoa izango, baina nik neronek, beste hizkuntzetako berri batere jakin gabe, *legezko* adin proposatu nuen gaztelaniaz *mayoría de edad* dioten horren ordaintzat, eta garai bateko *adin heldutasun* erdalklonikoegiaren ordezkotzat. Gaztelaniazkoaren antz gutxitxo nonbait, eta larri jendea, segurantziarik ez. Etsi-etsian txukunbide europeistaren arrastoan abiatu gara, eta horra non jakiten dugun inglesez *lawful age* esaten dela hori, hots, 'legezko adin' gutxi gorabehera. Hura jendearen lasaitua! Inglesak asko laguntzen du, bai, baina badirudi geure baitarik sortutako gauzekin ez garela sobera fio; badirudi, español hutsari itzuri egin nahi liokeen txukunbide berriaren arabera, Europako inongo hizkuntzatan esaten ez den gauzarik ezin esan edo proposa daitekeela euskararentzat; badirudi, lasai geldituko bagara, Europako hizkuntza baten (ahalik-eta gehienen) babesa, argia eta itzala behar ditugula baitezpada. Eta martxa koxkorra da hori oso. Horrek esan nahi du, eufemismoak alde batera utzita, euskara autonomiarik eta bizitasunik gabeko hizkuntza dela, eta hizkuntza barren-hutsa, elkortua, agortua eta hila.

Autonomia eta bizitasuna. Linguisten artean jakina denez, W.A. Stewart jaunaren teoriaren arabera, lau eskuleku edo ardatzetatik harturik neur daitezke hizkuntza baten graduak: delako hizkuntza horren historikotasuna, normalizazioa, bizitasuna eta autonomia. Halaxe gogorarazten zigun Mitxelenak ere duela hamasei urteko «Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia» izeneko artikulu gogoangarri eta gogoetagarri hartan. Mitxelenaren orduko jardunaren funtsa zen jendeen hizkuntza arrunt eta naturalak bere autonomia gal zezakeela, euskara hizkuntza exonormatiboa (eta hipernormatiboa, gehitzen dut nik orain) bihur zitekeela, hau da, hizkuntzaz goragoko eta kanpotikako zera batek jarritako arauen mendean errenditu beharrekoa; eta horrek garai hartan (1981ean), Mitxelenaren arabera, esan nahi zuen, besteak beste, euskara arrunt-naturala UZEI-euskara tekniko halamoduzko baten dialektu soil bihurtzea (cf. gorago aipatutako *zain*-en atarramentu beltza, Zientziaren erpinetan ondoeztutako zenbait teknolapikoren atzaparretan).

> Kontsigna eta arauen gainezkatze eta saturazioak, martxa honetan, hizkuntza naturalen multzotik behin betiko erauzaraziko du euskara; gehiegizko olio arauemailearen gantzudurak ito egingo du, lehenaz gain, euskararen motor elbarritua

Baina neretzat, eta hemen darabilgun teman, bizitasuna eta autonomia biak batean ageri zaizkit, eta honako euskalzulo bihozmindu honek (ai, ama!) deklaratzen du: euskara gaur, erabat harturik eta salbuespen abar-laburrak salbuespen, ez da hizkuntza bizi-autonomoa. Euskalzulo batek, gaur egunean, euskarari hildako hizkuntza baten tankera hartzen dio erremedio gabe. Hizkuntza exonormatiboa eta kontsignapekoa da ezin sinetsizko neurrietaraino, eta berdin dit orain kontsignanteak zein diren: Elhuyar-Harluxet edo Sarasola-Lur. Kontsigna eta arauen gainezkatze eta saturazioak, martxa honetan, hizkuntza naturalen multzotik behin betiko erauzaraziko du euskara; gehiegizko olio arauemailearen gantzudurak ito egingo du, lehenaz gain, euskararen motor elbarritua. Euskara 'behar-hizkuntza' bihurturik dago: euskaraz ez da ia deus hola-ta-hola *esaten*; euskaraz ia dena hola-ta-hola *esan behar* da. Euskaltzalea, bien bitartean, lainopean bezala galdua dabil, eta bere ezereza jazteko, munduko inongo hizkuntza bizi-autonomotan gertatzen ez dena, kontsignak eta arauak eskatzen ditu, loreak udan ihintza bezala, zenbat-eta gehiago hobe (cf. Euskaltzaindia 'orduak nola esan behar diren' esplikatzen!!!). Haiei itsu-itsuan segi, eta lasai ederrean bizi da euskaltzalea, zoratzen, nekrofiliazko atsegin debekatuei ederretsirik, aski segur. Kontsignapeko euskara ikasi-landua egingo du euskaltzaleak bere ustez, jakin gabe ordea, oraindik (urte askoan!) gelditzen zaizkigun euskaldun ezjakin bakanentzat, *ikasitako euskara* juxtu-juxtuko euskaldun berri nabarmenen totel-hizketa besterik ez dela.

Baina euskara inoiz hizkuntza bizi-autonomoa izana da. Noiz? Ba, konparazio batera, eta hitz soilen eremutik atera gabe, *zulogile*, *txalburu* eta *bihotzerre* bezalako hitzak asmatzeko eta zabaltzeko gauza zenean. Gaur, berri-berritik, 'ehorzle' esateko ez litzateke inor ausartuko *zulogile* proposatzera; 'zabalegia' izango litzateke, ez aski zehatza, eta beraz, ez litzateke etimolojikoki xuxena (hilotzen ehorzleari nola deituko diogu ba «zuloak egiten dituena»?); askatasun poetiko handiegia litzateke euskara bezalako hizkuntza hil-hurren batentzat. Erdarak libreago dira: zuloari *agujero* deitzea zilegi da oraindik, gaurko hiztunak hitz hori orratzekin lotzen ez duela jakinik ere; edo *chauffeur* (eta hortik *chófer*) gidaria autistari, gaur deusik berotzen ez badu ere. Gaitz edo ezintasun honen antzeko zerbaiti deitzen zaio Sarasolaren liburuan *esne desnatatuaren sindromea* (ik. han bertan *esne desnatatua* sarrera). Igelkumeari *txalburu* esatea berriz, ez da zoolojikoki xuxena; orain kasik ez dago deus proposatzerik Zientziaren dotrinarekin bat ez datorrenik; gaur *txalburu* bezalako hitz bat proposatzea hiperpoetikoa litzateke euskaltzaleen kontzientzia kamustuarentzat. Eta *bihotzerre*? Puf!, kasik lotsagarria ere bada. Esaiozue hezurbeltz bati belarri-ertzera «que al ardor de estómago los vascos le decimos 'corazón quemado'» (berez ez da hori, baizik 'quemadura (ardor) de corazón' jakina). Txukunzale europeistaren bat horrelako estuasunean kausituko balitz, jakinik Europako ispiluan bere burua ezagutzeak zenbateraino pozkidatzen duen, jakin beza, ez badaki, bihotzerreari inglesez *heartburn* esaten diotela, hots, bihotzerrea. Baina berdin dio; hitz hori asmatu zuten euskaldunek ez zekiten inglesez hitzik ere, eta hortxe dago koxka: hizkuntza bizi-autonomo batek asmatua dela *bihotzerre*, eta ez, *heartburn*-en eredura, autonomiarik gabeko txukunbide europeista batek sarrarazia euskararen gorputz arnasgabean.

Eta hauxe da Sarasolaren txukunbide europeistaren ajea: españolaren morrontzapetik, españolaren errainu izatetik, 'europeera'-ren errainu izatera igarotzen garela. Stewart-en lauhortzean, euskara hizkuntza historiaduna (Historia baino hagitzez lehenagokoa!), eta normalizatua izango da, txukunkiro normalizatua, baina, ai!, bizitasun eta sormen autonomorik gabea, gaitz horiek, begien bistan dago, ez dituelako inongo txukunbidek sendatzen. Ez da izango beharbada benetako hizkuntza hila, baina bai apropostako hizkuntza bukatua.

Sarasolaren liburua baitezpada irakurri beharrekoa da. Joan den aspaldi handian ez du inork inongo liburutan, zenbait desarrazoi kaxkarren artetik, hor biltzen den adina zentzuzko arrazoi bildu euskararen izaera eta zer-nolakotasunaren gainean. Euskaltzale txintxoen unibertsoak atsegin-kontentuz irakurriko du, amenka. Honako euskalzulo honek omenka irakurri du, eta pasioz, liburuarekin borrokan bezala: irakurri dudan denboran, ez dit bakerik eman hilotz bat lurrazpirako edertzen ari garelako irudipenak.

Ezin hilez gaude bizirik. ■